

ORDEZKARITZA ETA ALDERDI POLITIKOAK

ALDERDI POLITIKOAK

- 1. Ibilbide historikoa.
- 2. Egitura, sailkapena eta funtzioak
- 3. Alderdi sistemak

ORDEZKARITZA

- 4. Ordezkaritza politikoa
- 5. Hauteskundeak: izaera, garrantzia eta funtzioak

HAUTESKUNDE SISTEMA

- 6. Osagaiak
- 7. Eraginak

1.GAIA: Ibilbide historikoa.

Alderdi politikoa

“Gizabanakoen interesak defendatzeko elkartea da, botere politikoa eskuratzeko, maneiatzeko eta bere egitarau politikoa aurrera ateratzeko barneko egitura hierarkikoa duena” (Barcena eta Larrinaga 2004)

Nolabait ere, alderdi politikoen kontzeptualizazioak aldatu egin dira denboraren poderioz.

- **Edmund Burke:** Frantziar Iraultzaren garaian, alderdi bat "interes nazionala defendatzeko gizakien multzo bat, oinarrizko printzipio eta helburu adostuak dituen" zen.
- **Max Weber:** Alderdi politikoa helburu jakin batekin, modu *objektiboan* (programa bat burutzeko) edo *personalean* (mozkinak eta boterea lortzeko) antolatzen den elkartea litzateke.
- **Raymond Aron:** Botere politikoa eskuratzeko, erabiltzeko eta mantentzeko helburua duen erakunde erregularra eta iraunkorra.
- **Janda:** bere ordezkariak gobernu postuetan kokatu nahi duten erakundeak dira.

Alderdi politikoak, interes taldeak eta gizarte mugimenduak

	Alderdi politikoa	Interes taldea	Gizarte mugimendua
Antolaketa egitura	Sendoa, egonkorra	Sendoa, egonkorra	Aldakorra
Solasa	Globala	Arlokoa	Zeharkakoa
Jarduera eszenatokia	Instituzionala	Instituzioetan eta haietatik kanpo	Erakundeetatik kanpokoa

Ibilbide historikoa:

Alderdia edo partidua hitz zaharra da, **hizkera militarretik** hartutakoa. **Greziako** Tukidides historiagile klasikoak bere "Peloponeso Gerraren Historian" **armada eta hiri-estatuetakoa lider edo familien** atzetik zeuden **antolamendu politiko-militarrak** adierazteko hitz egin zigun alderdiaren figuraz.

Erromako historian, **klase edota familia aristokratiko desberdinen arteko liskarretan** elkarren artean tematzen ziren **taldeak** izendatzeko alderdi hitza erabiltzen zen.

Erdi Aroan, halaber, horrelako tituluak **guelfoek** eta **gibelinoek** ordezkatzeko zuten **printze inperialaren eta Aita Santuaren arteko lerrokatzearen adierazle** gisa aurkitzen ditugu.

Sasoi historiko luze horretan (Grezia klasikotik iraultza burgesak gertatu arte), **alderdiak baino gehiago fakzioak¹** ditugu, eta izen peioratibo horrekin **botere bila dabiltzan komenientziatzeko antolamendu politiko-militarrak** adierazten dira.

Autore askoren ustez, alderdi politikoak ez ziren existitu **monarkia absolutisten gainbeheraz eta demokratizazioaren bultzadaz burujabetza edo subiranotasun nazionala herriaren inguruan** eraiki arte. Hots, herriak **lider karismatiko edo aristokratikoez gain bere zeregin politikoak ekoizteko ideologia politikoen arabera aukerazko elkarteak** egon arte.

Alderdi politikoak Europatik mundu osora politikagintzarako funtsezko tresna legez barreiatu ziren. Gaur egun ezagutzen ditugun alderdi politikoak instituzio gazteak dira, herrialde gehienetan 100 urte baino gutxiagoko adina baitute. Adb: PSOE 1879, EAJ 1895, PCE 1921...

Ingalaterran, hasierako alderdi politikoak (*whigs* toleranteak edo *tories* anglikanoak) fakzio aristokratiko batzuen inguruan sortu ziren.

AEBtan, **fakzio eta pertsona dirudunen** (Jefferson, Hamilton) beharrian elektoralak zirela-eta, hauteskunde-barrutien antolakuntza zentralizatu baterako jaio ziren, erroldan oinarritutako sufragioaren garaian.

Eredu politiko liberalean marjinatorik sentitzen ziren gizarte-sektoreen aldetik, **alderdi berriak irten ziren eszenatoki politikora, eta langileria industrialak ordezkatu zuten.**

Alderdi liberal eta kontserbadoreen atzetik, XIX. mendearen bukaeratik eta XX. Mendearen hasiera arte, **langileengan eta beste klase sozial baztertuetan finkaturiko alderdiak eratu ziren.**

Alderdi politiko horiek **asmo iraultzaile eta erreformistetan oinarrituta sortu ziren.**

¹ f. Grupo de gente amotinada o rebelada.

2. f. Grupo de personas unidas por ideas o intereses comunes dentro de una agrupación o colectividad. *La facción conservadora del partido.*

3. f. Bando, pandilla o partido violentos o desaforados en sus procederes o sus designios.

Denboraz, **alderdi sozialista eta alderdi sozialdemokrata instituzio parlamentario eta gobernarietan integratu ziren** heinean, alderdi tradizionalen funtzio bera betetzen hasi ziren.

Lehen Mundu Gerraren atarian, R. Michels-ek Alemaniako SPD alderdia aztertzean, teoria soziologiko bat egin zuen alderdi politikoen barnerako eta kanporako demokraziaren eskasia seinalatuz, "oligarkiaren burdinazko legea" delako izenez ezagutzen duguna. Bere ustez, ideologiaz aparte, zentralizazioa eta lidergo elitistak ezinbestean gertatzen ziren.

Geroxeago, **beste mota bateko alderdi politikoak sortu ziren, instituzio parlamentarioetatik kanpo.** Alderdi berrien funtsak **lurralde-integrazioari loturiko arazoak** izan ziren batez ere, eta **baita talde etniko eta erlijiosoen eskakizunak** ere.

Europar eta gainerako kontinenteetan gatazka horietatik **alderdi nazionalistak eta erregionalistak jaio ziren, ezaugarri etniko eta linguistikoetan** oinarrituta.

Alderdi demokrata-kristauen sorrerak, aldiz, nazio-estatuaren integrazio arrazoiak alde batera utzita, **alderdi sozialisten arrakasta mobilizatzaileekin zerikusitua handiagoa** izan zuen seguru asko, baita ere **horiei aurre egiteko asmoekin, erlijio kristaua gizarteko errekurtso ideologiko eta bateratzailea zela aprobetxatuz.**

Deskolonizazio-prozesuen ondorioz, Afrikan eta Asian ere estatu alderdi motakoa izan zen eredu berria, **kutsu nazionalistarekin eta funtzio biltzaile eta integratzailearekin** hain zuzen ere. Alderdi politiko horiek, **askapen nazionalaren ondorioa izanik, modernizazio, zentralizazio eta garapenerako egitura nazional berriak eraikitzea zuten helburu,** baina laster konturatu ziren askapen politikoak ez zuela independentzia ekonomikorik ekarriko.

Mendebaldean , Bigarren Mundu-Gerraren ostean eta gizarte-mugimenduen eskutik, feministak eta berdeak izan ziren sortutako azken alderdiak.

Feministek ez zuten emaitza parlamentario handirik lortu, eta alderdi tradizioaletara bideratu zituzten beren kezkak (emakumeen kuotak proposatuz, esaterako). Plazandreak, Alderdi Feminista...

Alderdi berdeek Mendebaldeko sistema politiko gehienetan lortuko zuten sartzeari, eta sozialdemokratekin eginiko gobernu-koalizioetan ere parte hartu dute. Adibidez: 1993an Alemaniako Berdeak ekialdeko Alemaniako *90 aliantzarekin* bat egin zuen eta. 1998 eta 2005 bitartean gobernuan egon ziren SPDrekin batera.

Europar Parlamentuan 70 aulki dituzte eta laugarren indar politikoa dira. Alemanian bigarren, Frantzian hirugarren, herrialde gehienetan igoera. Alemanian 10 puntu igo dira, parte hartzea handitu da eta aldaketa klimatikoaren kontrako mugimenduekin kointziditu du, gazteen bozka asko jasoz.

2.GAIA: Egitura, sailkapena eta funtzioak

Alderdi politikoak demokrazia ordezkatzaillearen oinarriak dira. Gaur egungo demokrazia, "alderdien demokrazia" dela esan daiteke. Sozializazio politikoa sortzen dute, parte hartze politikoa bideratzen baitute.

Kritika gisa, alderdi eta gobernuek herri mugimenduetako kuadroak eskuratzen dituzte beraien lantaldean txertatzeko (koptazioa).

J. Lapalombara-ren ustez, alderdiek, benetako alderdi politikoak izateko, lau baldintza bete behar dituzte:

- **Elkarte iraunkor edo egonkorak izatea.** Abagune baterako sortutako talde edo ekimen politikoak zein hauteskunde-koalizioak, denboraren poderioz beren izaerari eusten ez badiote, ez lirateke alderdi politikoen atalean sartuko.
- **Tokiko egitura eta egitura nazionala edukitzea.** Hanka biko egitura beharko dute, eginbehar lokaletan eta erdiguneko erakundeen dinamiken gainetik ibiltzeko. CUP?
- **Boterera heltzeko eta boterea eskuratzeko borondatea edukitzea.** Horretan datza presio-talde eta gizarte-mugimenduekiko desberdintasunik handiena, eta, egile askoren iritzian, horixe da hain zuzen ere alderdien funtsa, lehengo helburua eta oinarri logikoa.
- **Herriaren laguntzaren bila jardutea.** Sistema demokratikoetan alderdien legitimazioa gizartearen bultzadaz eta jarraipenaz soilik lortzen da, eta hori boto-ontzien emaitzetan neurtzen da, edota herri-mobilizazio eta erakundeen babesean.

Alderdi politikoen barne egitura

- **Buruzagiak:** Alderdiaren funtzionamenduaren arduradunak.
- **Iraunkorrak:** modu iraunkorrean alderdian dauden langileak, soldata jasotzen dutenak.
- **Militanteak:** Kuota bat ordaintzen dute eta lan egiten dute alderdirako.
- **Afiliatuak:** Kuota bat ordaintzen dute baina ez dute lanik egiten alderdian.
- **Jarraitzaileak:** Alderdia bozkatu, defendatu, ideologia zabaldu, ekintza publikoetan parte hartu, modu ez iraunkorrean ekonomikoki lagundu... konpromisorik gabe.
- **Boto-emaileak.**
- **Egitura formala:** Egitura piramidala normalean, lurralde banaketa (udala, probintzia, autonomia...) zuzendaritza batzordera heldu arte.
- **Zuzendaritza Batzordea:** Kongresu edo asanblada orokorra, kontseilu exekutiboa, idazkari iraunkorra, presidentzia.

Batzuetan korronteen antolaketa formala onartzen da.

Sartori eta alderdi politikoak:

Alderdiak ingurune natural bezala ulertzen dira: “la mayor parte de los partidos son (...) amalgamas, combinaciones de diferentes proporciones de fracciones, corrientes, independientes y/o agrupaciones atomizadas.”

- **Frakzioak** alderdiaren barnean dauden botere taldeak dira, antolatu gabeko tendentzia informalak.
- **Korronteak** ideia eta jarreraren inguruan sortutako talde erregularrak dira, antolatuta dauden tendentziak.
- **Independienteak** afiliatuta ez dauden pertsonak dira, programarekiko atxikimendua adierazten dutenak eta alderdian eragina eduki dezaketenak.
- **Atomizatutako elkarteak** lider zehatzen inguruan sorturiko taldeak dira.

*Independienteak eta atomizatutako elkarteak periferikoak dira, alderdiaren ertzetan kokatzen dira.

Sailkapena helburuen arabera: Weber

- **Nagusi edo ugazaben alderdiak:** Nagusien interesak defendatzeko.
- **Klase edo estamentuzkoak:** Klase interesak edo interes kolektiboen alde egiteko.

Denak dira ideologikoak, munduaren interpretazio edo doktrina baten defentsa egiten baitute.


Sailkapena oinarri sozialaren arabera: Blondel

- **Alderdi tribalak edo klientelistak:** modernizazioari erantzuteko botere eta indar sozial tradizionalak eratzen dituzten alderdiak dira sasoi politiko zehatz batean, gutxi antolatuak eta diziplina txikiarekin, baseekin harreman klientelista eta menperatzailea mantentzen dutenak.
- **Alderdi etnikoak:** estatu moderno multietnikoetan adierazpen nazionalistak egiten dituztenak.
- **Alderdi erlijiosoak:** erlijioak eta instituzio erlijiosoak pisu sozial indartsuarekin azaltzen dira, eta lehia politiko zentrala komunitate erlijioso desberdinen artean antolatzen da
- **Klase-alderdiak:** bereziki langileriaren alderdiak, kapitalismoaren eredu sozialaren aurka altxatu zirenak. Mota horietako alderdiak erantzun politiko berezi legez ulertu behar dira, egoera politiko historiko batean sortzen direnak.

Sailkapena garapen historikoaren arabera: R. Katz eta P. Mair

Notableen edo gailenen alderdia: 1850-1900

- Sufragio zentsitarioaren garaikoa.
- Egitura txikiko erakundea
- Lidergo pertsonala
- Jarduera politikoa parlamentura mugatua
- Afiliazio txikikoa
- Alderdiaren oinarria: Eskubide politikodun biztanleria.



Masa alderdia: 1900-1945

- Aldaketa sozial eta politikoen ondorioa (sufragioaren hedapena)
- Eredu klasikoa: alderdi sozialistak.
- Egitura burokratikoa, handia eta konplexua.
- Alderdi ideologiaduna.
- Afiliazio eta militantzia alderdia.




Figure 2. Mass parties act as links between the state and civil society.

Catch-all-party: 1945-1980

- Testuingurua: gerraostea, hazkunde ekonomikoa, ongizate estatua eta klase-gatazkaren leuntzea.
- Masa alderdiaren egitura mantentzen du baina funtzionamenduan aldaketak daude. (Afiliazioaren garrantzia, militantziaren galera)
- Klasearteko alderdi desideologizatua
- Hauteskunde emaitzetara bideratua
- Lidergoaren sendotzea
- Interes taldeen eraginaren handitzea
- Afiliazio heterogeneoa. Alderdiaren eta hauteslego tradizionalaren arteko haustura.


Kartel alderdia: 1980-...

- Cártel: "Convenio entre varias empresas similares para evitar la mutua competencia y regular la producción, venta y precios en determinado campo industrial." (RAE)
- Estatuaren eta alderdien arteko hurbilketaren ondorioa. (finantzatze menpekotasuna eta finantzatze erabakia)
- Alderdi-sistemak oligopolio gisa. Alderdi berrientzat oztopoak.
- Finantza errekurtsoen erabilpen intentsiboa
- Biziraupena alderdiaren helburu nagusia.

K. von Beyme-k egindako tipologia historikoa aprobeztatuz, J. Riechmann-ek zerrenda batean hamabi multzotan sailkatu ditu alderdiak, kronologikoki eta bakoitza bere kontraesan sozialari lotuta:

Alderdiak	Kontraesana	Alderdiak	Kontraesana
Liberalak	Antzinako Erregimena	Komunistak	Sozialdemokrazia
Kontserbadoreak	Frantziar Iraultza	Faxistak	Gizarte demokratikoa
Langileak	Sistema burgesa	Burges Txikiak	Ongizate Estatuaren burokrazia
Nekazariak	Sistema industrial	Berdeak	Produktibismoa
Erregionalistak	Zentralismoa	Feministak	Patriarkatua
Kristauak	Laikotasuna	Arrazistak	Multikulturalismoa

Cleavage eta alderdiak: Lipset eta Rokkan



Alderdi kontserbadoreak:

- Estatuaren esku hartze ekonomikoaren aurkako solasa, praktikan salbuespenak.
- Merkatuaren defendatzaileak.
- Gizarte gatazken kontrolerako estatu sendoaren aldekoak.
- Estatu-nazionalismoa.
- Elizarekiko harmena.
- Bozemaileen profila: klase ertain-altua, landa eremua, soldatapeko sektore tradiziozaleak.

Alderdi liberalak:

- Liberalismo ekonomikoa.
- Solasaren ardatza gizabanakoa.
- Elitismoa
- Antikomunismoa eta laizismoa.
- Estatuaren funtzioak liberalismo klasikoak azaldutakoak
- Baikortasun teknologikoa, hazkundera.
- Unibertsalismoa: Nazioz gaindiko integrazio prozesuen aldekoak.

Alderdi sozialistak (sozialdemokratak):

- Estatu liberal-demokraten baloreei loturik.
- Bere diskurtsoaren ardatza berdintasunaren kontzeptua.
- Estatuaren esku hartze ekonomikoa. Erreformismo parte hartzailea.
- Sindikalgintzari historikoki loturik.
- Estatismoa
- Alderdi komunistak, azpitaldea.
- Aldaketa ideologiko handia azken hamarkadetan.

Alderdi berdeak:

- Gizarte mugimendu berrietatik eratorriak.
- Erregenerazionismoa, gai berriak eta antolatze forma alternatiboak.
- Testuinguruarekiko menpekotasuna.
- Barne aniztasun ideologikoa, komunean zenbait ildo: ekologismoa, feminismoa, gutxiengoaren babesa, hirugarren munduarekiko elkartasuna, pazifismoa...
- Bozemaileen profila: gaztea, hezkuntza maila handikoa, zerbitzu sektoreko profesionalak, balore postmaterialistadunak.

Alderdi politikoen funtzioak

Oinarritzkoak:

- ADIERAZI: Interesak, ideia politikoak
- BIDERATU: parte hartze politikoak, ordezkariak
- KOMUNIKATU: instituzio eta hiritarren artean

Sozializazio politikoa eta iritziaren sormena.

Historian zehar sozializazio moduak eta prozesuak aldatu badira ere, eta oraingo gizarteetan komunikabideen garrantzi nabaria onartuz, alderdiek programa eta balioespen politikoak aurkezten dizkiote gizarteari, eta hortik edaten du iritzi publikoak. Ez alderdiak soilik, baina alderdi politikoak bereziki, pentsaera eta sozializazio-prozesuetako funtsezko eragileak dira.

Interesen (partzial eta orokorren) egokitzapena.

Alderdiek batu eta sinplifikatu egiten dituzte gizartean ageri diren talde-interesak. Gaur egun Mendebaldeko gizarteetan alderdiak, aurreko ideologia partikular eta klasistetatik ihes eginez, proposamen global eta orokorretara egokitzen dira, azken hamarkadetan gertatu diren homogeneizazio-dinamiketara egokituz.

Elite politikoen erakuntza.

Haien laguntza eta egiturarik gabe gobernura ailegatzea oso zaila suertatzen da eta gobernu-postuetara iristeko alderdien zirrikituetatik igaro behar da, zeren eta beste bide batetik doazen liderrak ere, azken batean, alderdi baten inguruan antolatu behar izan baitira (De Gaulle, Rockefeller, Berlusconi...).

Herriaren eskakizunak bideratu.

Sistema politiko demokratikoetan haxe bera da alderdiei egokitzen zaien funtziorik funtsezkoena: herriaren gogo eta adierazpen politikoen kanalak izatea. Horrela, alderdiak herritarren kezka gobernura bideratzeko eramaileak izango dira. Zentzu horretan, gobernuko kideek, baita oposizioan daudenek ere, gizartearen atal desberdinak ordezkatuko dituzte harreman eta erabaki politikoen agendaren diseinuan.

Sistema politikoaren egonkortasuna eta indarketa.

Sistema politikoak gobernuan eta oposizioan dauden alderdien arteko jokoaren bidez elikatzen dira, eta horrela alderdi politikoek beren egiturak indartzen dituzte, nahiz eta batzuetan alderdi antisistemak topatu. Horiek, berez duten ideologiagatik, ez dute joko politikoan parte hartu nahi eta sistema politikoarekin bukatu nahi dute, nahiz eta posizio hobeetan egoteko sistemaren behin-behineko erabilpen pragmatikoa egin.

Alderdien funtzioak demokrazia garaikideetan: Cotarelo

Gizarte funtzioak: Sozializazio politikoak, iritzi publikoa mobilizatzea, interesak ordezkatzea eta sistema Politikoaren zilegitasuna.

Erakunde Funtzioak: Elite Politikoak erreklutatzea, hauteskundeak antolatzea, Legebiltzarraren antolaketa eta gobernuaren antolaketa.

3.GAIA: Alderdi sistemak

Definizioa: Alderdi-sistema osatzen duten eragileen arteko harremanen eredua da, ez alderdien batuketa soila, azterketa berezia behar duen fenomeno konplexua baizik.

Sartori: Alderdien arteko kompetentziaren ondorioz sortzen diren elkarrekintzek osaturiko sistema.

Alderdi sistemaren sailkapena:

Duverger eta Blonderek tipologiak egin zituzten arren, Sartoriren sailkapenak izan du eragin handiena: alderdi kopuruaren eta distantzia edo sakontasun ideologikoaren arabera.

Alderdi sistemen analisi honetan, alderdi bat ez da kontuan hartuko gehiengo koalizio baterako beharrezkoa ez bada, baina, gainerako alderdien arteko lehiaren taktikan eragina badu bai.

ALDERDI LEHIAKORREN SISTEMA	Pluralismo polarizatua
	Pluralismo moderatua
	Sistema bipartidista
	Alderdi nagusidun Sistema
ALDERDI EZ LEHIAKORREN SISTEMA	Alderdi hegemonikodun Sistema
	Alderdi bakarraren Sistema

Alderdi bakarraren sistema:

- Ez da beste alderdirik onartzen.
- Monopolioa.
- Sartorik hiru eredu desberdintzen ditu: sistema totalitarioak, autoritarioak eta pragmatikoak. Sailkapen hau koertzio, errepresio eta eraturako ideologia baten presentziaren arabera neurtzen da.
- *Adibidea: Alemania Nazia*

Alderdi hegemonikodun sistema:

- Beste alderdi gehiago egon daitezke, era subordinatu eta ez antagoniko batean.
- Hauteskunde semikonpetitiboak, berdintasun baldintzak ez dira betetzen eta alternatziarako aukerarik ez dago.
- Hierarkia edo monopolio lasaia.
- *Adibidea: PRI México 1930-2000*

Alderdi nagusidun sistema:

- Alderdi nagusi bat dago, besteekin 10 portzentaje-puntuko ezberdintasuna
- Sistema pluralista da, antagonismoa ematen da.
- Legezko alderdi lehiakorak daude eta alderdi nagusiarekiko independenteak dira.
- Alderdi txikiak ordezkaritza parlamentarioa dute eta mailaren batean erantzukizun instituzionalak.
- Alderdi batek lau legegintzaldiz gehiengo osoa eskuratzen duenean ematen da.
- *Adibidea: Suedia 1932-76,*

Alderdi biko sistemak:

- Gehiengo sistemekin loturik.
- Eserleku kopuruan neurturik.
- Bi alderdiren arteko lehiaren helburua: gehiengo osoa.
- Alderdi bateko gobernu.
- Gobernu txandakatzearen aukera erreal da.
- *Adibidea: AEB*

Pluralismo moderatua:

- Koalizio gobernuak eratzeko aukera dago.
- 3-5 alderdi garrantzitsu
- Distantzia ideologiko txikia
- Sistema bipolarra (ez dira bi alderdi, bi koalizio alternatiboen lerrokatzea).
- Sistemaren aurkako alderdirik ez dago
- Orokorrean, ez da gehiengo osorik ematen eta alderdi bozkatuena boterea konpartitu behar du.
- *Adibidea: Espainia*

Pluralismo polarizatua:


- 5 alderdi garrantzitsu baino gehiago
- Sistemaren aurkako alderdia edo alderdiak (deslegitimatzaileak)
- Oposizio elkar baztertzailak
- Zentro politikoaren ahulezia
- Ideologiaren garrantzia



EAEko alderdi sistema:

EAEn alderdien sistemari dagokionez Sartorik pluralismo polarizatu gisa definitzeko ezarritako ezaugarriak betetzen dira: hauteskundeetan garrantzia handia duen sistemaren aurkako alderdi bat dago, hots, ezker abertzalea (gaur egun berrikusi behar) eta bi aldeko oposizioa dago, ezinezkoa baita ideologikoki aurkakoak diren alderdien arteko batasuna ematea, esate baterako PP eta ezker abertzalearen artekoa; horrek EAJ alderdiak duen nagusitasuna eragin eta berresten du, oposizioa ideologikoki oso zatituta baitago.

Sistemaren ardatz eragile zentralaren tokia (ez da nahastu behar ideologia zentristaren kontzeptuarekin) EAJ alderdiak betetzen du eta gatazkaren ardatzekiko kokaleku zentrala du, bereziki, garrantzitsuena bezala ageri den erdigune-periferia gatazkari dagokionez; gatazka horretan euskal gizartea auto-definitzeko erabiltzen den kokalekuaren erdian dago (nazionalismo moderatua).

Indizeak	1980	1984	1986	1990	1994	1998	2001	2005	2009	2012	2016
Parlamentuko alderdi kopurua	7	5	7	7	7	7	5	6	7	5	5
1. alderdia	PNV	PNV	PSE	PNV	PNV	PNV	PNV-EA	PNV-EA	PNV	PNV	PNV
2. alderdia	HB	PSE	PNV	PSE	PSE-EE	PP	PP	PSE-EE	PSE-EE	EH-Bildu	EH-Bildu
1. alderdiaren %eserleku	41.7	42.7	25.3	29.3	29.3	28.0	44.0	38.7	40.0	36.0	37.3
2. Alderdiaren %eserleku	18.3	25.3	22.7	21.3	16.0	21.3	25.3	24.0	33.3	28.0	24.0
1. eta 2. alderdien %eserleku batuketa	60.0	68.0	48.0	51.0	45.0	49.0	69.5	62.7	70.3	64.0	61.3





Gobernuak	
1.- Gobernua I (1980) Garaikoetxea I - PNV bakarrik I Legegintzaldia	9.- Gobernua IX (1998) Ardanza VII - PNV+EA V Legegintzaldia
2.- Gobernua II (1984) Garaikoetxea II - PNV bakarrik II Legegintzaldia	10.- Gobernua X (1998) Ibarretxe I - PNV+EA + (apoyo externo EH) VI Legegintzaldia
3.- Gobernua III (1985) Ardanza I PNV bakarrik + (PSEren kanpoko sostengua) II Legegintzaldia	11.- Gobernua XI (1998) Ibarretxe II - PNV+EA VI Legegintzaldia
4.- Gobierno IV (1987) Ardanza II - PNV + PSE III Legegintzaldia	12.- Gobernua XII (2001) Ibarretxe III - PNV+EA+EB-B VII Legegintzaldia
5.- Gobernua V (1991) Ardanza III - PNV+EA+EE IV Legegintzaldia	13.- Gobernua XIII (2005) Ibarretxe IV - PNV+EA+EB-B eta (Aralarren kanpo sostengu ez formalizatua) VIII Legegintzaldia
6.- Gobernua VI (1991) Ardanza IV - PNV+PSE+EE IV Legegintzaldia	14.- Gobernua XIV (2009) López I PSE+PPren sostengua mozorroturiko koalizio bidez (UPyDren sostengu ez formalizatua) IX Legegintzaldia
7.- Gobernua VII (1993) Ardanza V - PNV+PSE-EE IV Legegintzaldia	15.- Gobernua XV (2012) Urkullu I PNV X Legegintzaldia
8.- Gobernua VIII (1994) Ardanza VI - PNV+PSE+EA V Legegintzaldia	

4.GAIA: Ordezkaritza politikoa

Ordezkaritza politikoaren osagaiak:

- Ordezkatzen den "zerbait ": pertsona bat, alderdi bat, mugimendu bat, sinbolo bat...
- Norbait/ordezkatua izaten ari den kolektiboren bat: : hiritar talde bat, nazioa, Estatua (komunitate politikoa)...
- Ordezkatzen ari den zer edo zer: baloreak, ideia politikoa, interesak...
- Ordezkaritza ematen den testuingurua

Ordezkaritza kontzeptuaren adierak: H. Pitkin *"El Concepto de Representación"*

- 1- Subiranotasunaren uztea da
- 2- Ordezkatuaren interesen defentsan egiten den jarduera da
- 3- Ordezkaritza erantzukizuna da
- 4- Errealitate baten isla da
- 5- Irudikatze sinbolikoa da

Ordezkaritza formalista: Ordezkatua denak ordezkatzaileari baimena ematen dio eta harreman hori bideratzeko egitura instituzionala sortzen da

Ordezkaritza simbolikoa: Ordezkatzen dena gogora ekartzeko zerbaitek edo norbaitek duen gaitasuna: bandera batek nazioa, internazionalak langile borroka...

Ordezkaritza deskriptiboa: ordezkatuen antzekotasunean oinarritzen den ordezkaritza, normalean ezaugarri soziodemografikoetan oinarritzen dena: emakumeak, gutxiengo etnikoak, goi mailako ikasketa gabeko pertsonak... ordezkaritza gisa.

Ordezkaritza substantiboa: ordezkarien jardueran oinarritzen da, ordezkatuen interesen alde jokatzean: alderdi komunista batek langileriaren interesen alde egiten duenean.

Ordezkaritzaren definizioa: Maurizio Cotta

Hiritarren eta gobernarien arteko izaera egonkorreko harremana, zeinaren bidez gobernariak, hauteskunde bitarteko instituzionalaren erabilpenaz erantzukizun politikoaren menpe egonik, hiritarren izenean eta hauen interesei begira gobernatzeko baimena duten.

Ordezkatze-sistema politikoaren sorrera

Ordezkatze-sistema politikoak demokraziaren eredu greziar klasikoaren aurka eratu zituzten.

Atenasen 250.000 biztanle zeuden, horietatik 40.000 hiritarrek baino ez zituztelarik eskubide politikoak (emakumezkoek, metekoek eta esklaboek ez). Leialtasun politikoa ez zen ahaidetasunean oinarritzen, hiriarekiko harremanean baizik, nahiz eta leinu loturek gizarte kohesioan garrantzia izan.

Polisa edo hiria zen beren antolakuntza politikoaren forma. Ekklesian, hiritarren asanbladan, 20 urtetik gorako gizonezko eskubide zibildunak biltzen ziren, legeak idatzi eta onartu, gerra/bake erabakiak hartu eta beste hiru erakundeetako partaideak (Boule, Herri Auzitegiak eta Magistratuak) aukeratu asmoz. Legeak onartu ahal izateko hiritarren quorum bat eskatzen zen ($\frac{1}{5}$, 6000 pertsona inguru).

Boule (bostehunen kontseilua) asanbladaren batzorde iraunkorra eta eskumen legegilea zuena zen, zozketaz hautatutako 500 hiritarrez osatua urte baterako. Ekklesiak aztertu beharreko gaiak prestatzea eta hiriaren finantzak kudeatzea ziren haren funtzioak.


- Phila: eguneroko gaiak lantzeko bouleren hamarrena, 50 kidek osatua.
- Episates: Philaren presidentea, egunero zozketaz aukeratua

Magistratuak urtebeterako hautatzen ziren zozketa edo bozketa bidez. Horietatik bi ziren garrantzitsuenak:

- Arkontekak: Funtzio exekutiboak betetzen zituzten. Goi klaseetako kideak ziren, aurreko ondarezko monarkia ereduaren aztarna.
- Estrategak: Gai militarrez arduratzen ziren, hots, armada zuzendu eta antolatzeaz. Ondoren, arkonteen funtzioak ere bete zituzten.

Auzitegiak ere bazeuden, gizartearen sortzen ziren gatazkak kontrolatzeko sistema eta arauak bete ezean zigorrak ezartzeko tresna zirelarik. Urtebeterako zozketaz aukeratutako 6.000 hiritarrez osatua zegoen.

Areopagoa heriotza delituak ezartzen zituen erakundea zen.



Demokrazia ordezkatzaila:

Grezia klasikoa dituzte sustraiak, Atenasen zehazki (K.A. IV eta V. mendean). Dêmos (herria) eta kratos (gubernua), herriaren gubernua, esan nahi du.

“...boterea gutxi batzuegana zabaltzea eta gutxi horietatik herri osora eta herri osotik, berriz ere, estatu buruarengana itzultzea izan zen demokrazia grekoaren berrikuntza” Antxustegi

Ezaugarriak:

- Ordezkariek
- Hiritarrek afera publikoan parte hartzeko kanala (hauteskundeak)
- Herritarren kontrola
- Herritarren eskubide demokratikoak bermatzen duen egitura
- «Berdintasuna»
- Idealetik urrun: herriaren boteretik urrun dago eta demokrazia hitzak abizenik gabe, ez du ezer esan nahi jada: Lurraren demokrazia, demokrazia inklusiboa, demokrazia parte hartzailea, demokrazia deliberatiboa...

Demokraziaren printzipioak: Manin

1. Gobernariak sistematikoki deitzen diren hauteskunderen bidez izendatzen dira.
2. Agindu ordezkatzaila.
3. Gobernariak euren iritzia modu askean azaldu ahal dituzte: oinarrizko askatasunen eta eskubideen bermea
4. Gobernariak hartzen dituzten erabaki politiko orok eztabaidaren pean jarri behar dira.

Sistema mistoak: Manin

Dimentsio demokratikoez eta ez demokratikoez osatuta daude. Hauteskunderik, gutxieneko askatasunak, prentsa askatasunak... nolabaiteko eztabaida bermatzen dute, baina boterea elite baten eskutan dago. Elite horrek kontrol sozial gutxi dauka eta elite ekonomiko eta lobby-en presioari men egiten dio, hiritarren mugimenduak kontuan hartu ordez.

Lobbyak presio taldeak dira. Estrasburgon eta Bruselan, erabaki politikoak hartzen ari den europarlamentari bakoitzeko enpresen interesak zaintzen dituzten 20 agente baino gehiago dago. EBk, gardentasunaren izenean publiko egiten duen zerrendan 3.000 pertsona daude lobbygintzan. Kalkuluen arabera, Bruselan 30.000 lobbyista eta 31.000 funtzionario daude, 6.935 presio talde Parlamentuan eta Euroganbarara sartzeko eskubidea dute. Talde hauentzat garrantzitsua da bertan egotea, EBko legeriaren %75 bertan zehazten baita. Espainian berriz, ez dago lobby erregulazioarik.

Nenzo Fenulli lobbyista: “Lobbystek legeak egiten dituztenei informazio erabilgarria ematen diete. Sarritan eurodiputatuek ezin dute arazo guztien ikuspegi osoa eduki”. Bere ustez, Europa mailako presio talde handienak autogintzan eta energia sektorean daude. Elikadura eta edarien konpainiek berriz, 1.000 milioi € bideratu zituzten lege bat atzera botatzeko.

Demokrazia ereduak: eredu klasikoak eta aldagai gaurkotuak

Definizioa: forma demokratiko bat eta bere azpian dagoen harreman egituraren gakoak azaltzeko eta argitzeko diseinatzen den eraikuntza teorikoa (Held).

Zenbait jarrera jaso dira politika zientzian demokrazioari buruz.

“Demokrazia, aurrez existitzen diren klase eta botere estrukturak mantentzeko eta justifikatzeko erabiltzen da” (...) “herritarrak lau edo sei urtero hauteskundeetan parte-hartzeko eskubidea izatera murrizten da demokrazia garaikidea” (Hobsbawm)

Mouffek demokrazia gobernu mota bat baino gehiago dela uste du, giza bizikidetasuna politikoki antolatzeko eredu da. Hau guztia, “bi tradizio desberdinen artikulazioagatik gertatzen delarik; batetik, liberalismo politikoaren tradizioa –legearen inperioa- eta bestetik, tradizio demokratikoaren artikulazioagatik – herri subiranotasuna”.

Demokrazia deliberatzailea:

Platonetik hasita demokrazian nortzuk parte hartzen duten gaiarekin kezka egon izan da. Utziko al diegu guztiei parte hartzen? Animalia handi eta indartsu bat kontrolatzea zaila da.

Demokrazia deliberatiboaren teorialariek (Besset, Habermas, Rawls) zioten erabakiak zilegi izateko hiritarren deliberazio publikoaren ondorioa izan behar direla. Esaterako, Eskandinabian galdeketa deliberatiboak egiten dira. Hauek dira eredu horren ezaugarriak:

- Eredu normatibo bat, ideal erregulatzaileria
- Demokrazia ordezkatzaileraren nozioa osatzea bilatzen du
- Prozedura kolektiboa erabaki politikoak hartzeko
- Halako erabakiek potentzialki eragindako guztien parte hartze aktiboa eskatzen du
- Deliberazio printzipioan oinarrituta
- Proposamen desberdinen argumentazioa eta eztabaida publikoa eskatzen du
- Kezka partekatua: Demokraziaren kalitatea
- Logika: Elkarrizketa arrazionala
- Eragileak: Herritar aktiboak
- Zilegitasuna: Informazioak iritzia aldatzen du eta interesen eztabaida arrazoiaren eztabaida bilakatzen da.
 - Eztabaida informatua
 - Arrazoiaren erabilera publikoa
 - Egiaren bilaketa inpartziala

Alabaina, demokrazia deliberatiboaren ereduak baditu arazo edo oztopo batzuk. Gizarte konplexuetan lortezina izan daiteke eta udalerrien tamainaren arabera ere zailtasunak egon daitezke.

Demokrazia parte-hartzailea:

Herritarrak prozesu parte hartzaileen bidez politika publikoaren eragileak bihurtzen dira, hauen beharra azaleratzerakoan, diseinuan, inplementazioan eta ebaluazioan.


“Politikagintza fase guztietan herritarren eta gizarte taldeen parte-hartze zuzeneko aurreikusten duen eredu demokratikoa, eredu ordezkatzailerekin alderatzen dena, nahiz eta gehienetan honen osagarri gisa eratuko den, politikagintza partekatua ezarriz”.

- Demokrazia partehartzailea, ez al da ba liskarra ekiditeko tresna?

Liskarra eta tresna partehartzaileak nekez uztargarriak

- Demokrazia partehartzailea, ez al da ba herritar soilaren parte hartzerako tresna?

Gizarte mugimenduak eta tresna partehartzaileak nekez uztargarriak



Islandiako adibidea:

2008an herrialdeko banku nagusia nazionalizatu zuten. Txanponak behea jo eta burtsaren jardura eten egin zen. Islandia erabateko gainbeheran sartu zen.

2009an herritarren protestei esker, hauteskundeak aurreratu zituzten. Lehen Ministroaren dimisioa iritsi zen aurrea, eta bere lantalde osoarena jarraian. Islandiak egoera ekonomiko larrian jarraitzen zuen. Britainia Handia eta Holandarekiko zorra ordaintzeko legea proposatu zuten orduan: Islandiako familiek 3.500 milioi euro ordaindu beharko zituzten ondorengo 15 urteotan, %5,5eko interesean.

2010ean jendeak kalea hartu zuen berriz ere eta legea erreferendumean aurkezteko eskatu zuten. Maiatzean herri galdeketa egin eta zorraren ordainketari EZEZKOA atara zen garaile, botoen %93 lortuta. Horrekin batera, gobernuak ikerketa abiatu zuen krisiaren arduradunen erantzukizuna zehazteko: goi karguak zein bankariak atxilotu zituzten. Beste bankari askok herrialdetik ihes egin behar izan zuten.

Era berean, herriak batzarra sortu eta Konstituzioa berridaztea jarri zuen lehen helburutzat.

Herri burujabetasuna baliatu horretarako: herritar soilak, herriak herriarentza aukeratutakoak

Nazio Foroak: 950 pertsona zoriz hautatuak ehun lantalde baino gehiagotan banatuta, aurreko lana has zezatela, testuaren (konstituzio berriaren) lanketa: lehentasunak markatuz. Handik, 700 orrialdeko txostena irten zen Batzorde Konstituzionalaren kideei eman zitzaion.

Batzorde Konstituzionalerako 522 hautesle zeuden (adin nagusitasuna eta 30 laguneko babesa izatearen baldintzapean). Hauteskundeetan 25 aukeratu zituzten eta 4 hilabetetan konstituzioa egin zuten, zuzeneko streaming saioak eginez eta iritziak/iradokizunak egiteko aukera utziz. Parlamentuan urtebeteren ostean onartu eta erreferendumean berretsi zen %66ko baiezkoarekin

Herri kontsultak:

Herriaren parte hartze zuzenerako formula bat da. Tokiko gobernuek dituzten eskumenei buruz herri kontsultak deitu ahal dira. Herri Ogasunarekin lotura duten gaiak ezin dira Herri kontsulten bitartez arautu.

Donostiako zezenketen kasuan, 3 urte luzez herritarren, udalaren, Auzitegi Gorenaren eta gobernuaren arteko tira-biren ostean ez zen onartu herri galdeketa.

Oldarkaz eginiko kontsultak: herriaren tamainaren arabera eta plenoan eztabaidatuz eta bozkatuz. Alonsotegiko errauskailua, Mendabiako zabortegia eta AHTren kasuan, bozen gehiengoz atzera bota baziren ere, neurriak inplementatu ziren galdeketak baliogabetuz.

Gonbidapenez egin diren kontsultak: bere eskumenen arteko gaietan. Ormaiztegiko zubi-zaharra mantentzea eta Usurbilen eroski bat jartzea galdetu zen, baiezkoa ateraz eta betez.

5. GAIA: Hauteskundeen izaera, garrantzia eta funtzioak ordezkari-tza sistemetan

Hauteskundeak: ordezkarien izendapenerako tekniketako bat da, hautesleriaren botoaren bidezkoa, hain zuzen.

Hauteskundeen izaera:

- Aukera askatasuna, hautatzeko askatasuna.
- Prozedura formalak bermatu behar dituzte.
- Eskubide zibil eta politikoak.

Berre konstituzionalak betebeharrak haueetan gauzatu behar dira:

- Sufragio eskubidea: unibertsala, balio berdinekoa, sekretua, libre eta zuzena.
- Hautagai-zerrenden aukera berdintasuna.
- Hauteskunde-deialdiak aldizkakoak eta erregularrak.
- Hautagai-zerrendak osatzeko elkartze askatasuna.
- Gobernuaren neutraltasuna hauteskunde-prozesuaren antolaketan.
- Emandako bozen herri-zenbaketa.
- Eserlekuen banaketak aurrez ezarritako arauen araberrako izan behar du.

Hauteskundeen garrantzia:

- Ordezkari-tza sistemen osagai nagusienetakoa.
- Prozesu politiko instituzionalaren sorrera.
- Hauteskunderik gabe ez dago ordezkari-tza sistematik.
- Legitimazio gai-nagusia.

Hauteskundeen funtzioak: gizarte homogeneoetan

- Legitimazioa.
- Konfiantza adierazpena.
- Elite politikoen erreklutamendua.
- Hautesleriaren interesen eta iritzien ordezkari-tza.
- Balio eta helburu politikoen inguruko hautesleriaren mobilizazioa.
- Agenda politikoaren definizioa.
- Bake prozeduren bitartez gatazken bideratzea.
- Aniztasunaren integrazioa eta borondate komun politikoki bideragarri baten osaketa.
- Botere politiko errekurtsioak eskuratzeko lehia sustatzea. - Gobernuaren izendapena.
- Oposizioa ezartzea eta gobernu aldaketarako aukera ematea.

6. GAIA: Hauteskunde sistemen osagaiak

Hauteskunde zuzenbidea eta sistema:

Hauteskunde-zuzenbideak hauteskunde-prozedura arautzen du:

- Sufragio eskubidea: sistema liberal-demokratikoen abiapuntua
- Nork deitzen ditu hauteskundeak?
- Deialdietarako epeak
- Kanpainaren finantzatzea
- Gatazkarik sortzekotan, epaimahaia
- Prozeduraren gardentasunaren arduraduna
- Nola zenbatzen dira botoak

Hauteskunde-arauetatik, hauteskunde-sistema osatzen da: sufragioak aulki bilakatzen dituen tresna, ondorio politiko konkretuekin eta osagai nagusi hauekin: barrutia, formula, muga eta botoaren egituratzea.

Sufragio eskubidea:

Sufragioa: hautaketa-prozesu batean botoa ematea.

Sistema liberal-demokratikoaren oinarritzko eskubidea da, botoa ematea politikoki parte hartzeko oinarritzko modua baita.

Aldagai dependiente edo independente moduan har daiteke:

- Unibertsalizazio prozesua jasan duen aldagai dependientea.
- Alderdi-sisteman eta sistema politikoan eragiten duen aldagai askea.

Sufragio eskubidearen baldintza normatibo batzuk: Unibertsala, boto berdintasuna, zuzena eta sekretua. Espainiako Konstituzioa, 68. artikulua: *“El Congreso se compone de un mínimo de 300 y un máximo de 400 Diputados, elegidos por sufragio universal, libre, igual, directo y secreto, en los términos que establezca la ley”*.

Ezaugarriak:

Eskubide unibertsala:

- Herritar guztiek beren ordezkariak hautaketan boto bidez parte hartzeko eskubidea (sufragio aktiboa)
- Eta ordezkari politiko moduan hautatua izateko eskubidea (sufragio pasiboa)
- Sexua, arraza, hezkuntza- maila, diru-sarrerak edo jabetza, lanbidea, klasea, erlijioa, ideología politikoa, eta abar kontuan hartu gabe.
- Ohiko mugak: Adina, herritartasuna, bizilekua (errola), adimen gaitasuna, juridikoki zigortuta ez egotea.

- Muga historikoak:
 - Talde etniko, gutxiengo erlijioso, emakumeen eta abarren bazterketa zuzena.
 - Sufragio zentzitarioa: jabetzan oinarrituta, zerga batzuen ordainketa, diru-sarreraren maila.
 - Hezkuntza-zentsoa eta gaitasun-sufragioa: hezkuntza-maila edo lanbide zehatzei mugatuta.
 - Errusian(1918): produktiboa eta sozialki baliagarria den lana egiten zituztenek bozkatu ahal zuten (lan domestikoa barne).
- Berrikuspenak martxan: adina, bizitokia (80ko hamarkadatik, atzerriko botoa),...

Boto berdintasuna:

- Pertsona bat, boto bat.
- Boto guztiek balio bera izatea.
- Ohiko muga historikoak:
 - Klase edo kasta botoa (boto kopuru bat klase edo kastari egokitzen zaiona.
 - Boto anitza (persona ezberdinek, ezaugarri pertsonalen arabera, boto kopuru ezberdinak ematea) edo ponderatua.
 - Eztabaida Brexitaren inguruan: bere ondorioak biziko ez dituztenen boto eskubidea mugatu beharko litzateke? Boto anitza hau eta gazteentzako?
 - Barrutien prorrataren desbideratzeak kolokan jartzen du baldintza hau.

Boto sekretua:

- Botoaren edukia ez ezagutarazteko eskubidea
- Horrek hauteskundeetarako azpiegitura zehatz baten beharra dakarra: kabinak, papeletak inprimitzea, urnak seilatuta egotea...

Boto zuzena:

- Ordezkarien hautaketa zuzena.
- Hautesle-kolegioen bitartekaritza eza (hautesle → hautesle-kolegioa → ordezkariak).
 - Hauteskunde ez-zuzen formala: bitarteko hautesleek hautu jakin bat egin behar dute (EE. UU. Presidentea, Gobernuko Presidentearen hautaketa).
 - Hauteskunde ez-zuzen sustantiboa: bitarteko hautesleek erabakitzen dute beren botoa. (Frantziako Senatua).

Boto librea? Interpretazio ezberdinak:

- Aurreko baldintza normatiboak betetzen badira.
- Bestelako koertzio edo presiorik gabeko hauteskundeak (kasu horietan, instituzioak juridikoki erantzuteko gai izan behar dira).

Sufragio eskubidearen hedatze prozesua:

Gizonezkoen sufragio “unibertsala” lehen aldiz Frantzia aitortu zen, 1792an. Dena dela, praktikan oso parte hartze txikia izan zuen. Sufragioa “unibertsala” izan aurretik zentsitarioa zen, irizpide ekonomikoen, hezkuntza-mailaren, etnikoaren... arabera. Gaur egun onartutako mugak: adina, bizitokia, nazionalitatea, gaitasun mentala, egoera juridikoa,...

Hedatze prozesu honek eragina izan zuen sistema politikoan, gatazka sozialak instituzionalizatzeko modua izan zelarik. Sufragio hedatu ahala, Estatuak izaera soziala hartuz doa. Bi eredu nagusitu ziren:

- Frantzia: lorpen goiztiarra baina gorabehera askorekin;
- Erresuma Batua, sufragio "unibertsala" (gizonezkoena) berandu lortzen da, baina bilakaera egonkorragoa.

Oro har, gizonezkoen sufragio unibertsala 1848tik Aurrera hasten da martxan, emakumezkoena berriz, Bigarren Mundu Gerratik aurrera orokortzen da.

Hauteskunde sistemen osagaiak:

Hauteskunde sistemen analisia bi modutara egin daiteke:

- Aldagai independente moduan, hauteskunde-osagaien ondorio politikoak aztertuz.
- Aldagai dependiente moduan, sistema bere testuinguru soziopolitikoan aztertuz.

Hauteskunde barrutia

Lehian dagoen aulki kopuruaren zehaztapenerako eta botoen araberako aulkien banaketarako hautesle multzoa (ez da lurralde eremu bat, hautesle multzo bat baizik).

Hauteskunde-sistemaren osagai polemikoena da barrutia, manipulazioa gerta daitekeelako eta erreformarik egin ezean, ez delako errealitate demografikora egokitzen, botoaren arteko berdintasun eza sortuz.

Barrutien mugarriztatzea gauzatzeko bi bide daude: beste funtzio politiko-administratiboetarako diren lurralde eremuak erabiltzea edo hauteskunde-barruti propioak diseinatzea.

Prorrataren araberako banaketa. (R): ordezkari bakoitzak ordezkatzeko dituen pertsona kopurua

$$R = \text{errola} / \text{magnituda} = x \text{ hautesle} / \text{ordezkari}$$

Beste funtzio politiko-administratiboetarako ezarrita dauden lurralde eremuak baditugu:

1- Prorrata zehaztu, hautesle kopuru bat ezarriz aulki bakoitzeko (adb. $R=100000$ hautesle eserleku bakoitzeko). Horrela, parlamentuko aulki kopurua aldagarria izango da.

$$m = \text{errola} / \text{prorrata}$$

2- Parlamentuaren magnituda zehaztu (adb. $m = 400R = \text{Hautesle errola} / 400$). Espainiar Estatuaren kasuan, sistemak gutxieneko eserleku kopuru bat ezartzen du.

$$m_{\text{barrutia}} = \text{errola} / \text{prorrata}$$

B) Barruti propioak diseinatu baditugu: prorrata zehaztu (adb. $R=50.000$ hautesle)

Malapportionment edo boto berdintasun eza (prorrataren desbideratzea):

- Barruti batzuetan aulki batek beste batzuetan baino gehiago edo gutxiago balio dezake.
- Normalean, landa-eremuak gainordezkatzeko joera dago, hiri-eremuekin alderatuz.
- Barrutia bakarra denean, ez dago arazo hori (Israel, Espainiar Estatuak Europako hauteskundeetan).

Gerrymandering deitzen zaio barrutien mugen manipulazioari hauteskunde-emaitzetan eragiteko, Elbridge Gerry Massachusettseko gobernadoreak bere alderdia irabazle irteteko diseinatu zuen barrutiari erreferentzia eginez.

Horren bidez, hautagai jakin baten garaipena bermatzen saiatzen da, alderdi jakin baten aulkiak maximizatuz eta beste alderdi batenak gutxituz. Hautagaiak nahastuz edota feudoak sortuz egin izan da historikoki (De Gaulle) eta oraindik martxan dabilen praktika bat da.

Barrutiaren magnitudea

Zenbat ordezkari edo aulki hautatzen diren adierazten du.

- Izen bakarreko barrutiak (uninominalak): ordezkari 1.
- Izen aniztasuneko barrutiak (plurinominalak): ordezkari 2 edo gehiago.

	Txikia	Ertaina	Handia
Nöhlen	2-5	6-10	11...
Vallès	2-6	7-14	15...

Barrutia zenbat eta handiagoa, orduan eta proportzionalagoa eta errazagoa alderdi txikiak eserlekuak lortzea.

Barrutiaren magnitudearen arabera, ordezkari-hautesle erlazioa aldatu egiten da. Izen bakarreko barrutiek pertsonen hautaketa ahalbidetzen dutela esan ohi da, alderdi edo zerrendena baino. Honek konfiantza, kontuak ematea (accountability) eta ordezkarien autonomia alderdiarekiko dakartza.

Hauteskunde formulak

Formula hautesleen botoak aulki bilakatzeko kalkulu prozedura da, hauteskunde-sistemaren osagai garrantzitsua, eraginetan bigarrena. Dena dela formulak ez du beti sistemaren izaera definitzen

Gehiengo-formulak

Gehiengo (erlatiboa edo absolutua) lortzen duena jabetzen da aulkiaz, irabazleen eta galtzaileen arteko bereiztea azpimarratuz. Gehiengoak sortzea da honen helburua.

- Gehiengo sinplea edo erlatiboa (first past the post): USA, UK...
- Gehiengo osoa:
 - Bi itzuliko botoa: lehenengo itzulian gehiengo osorik atera ez bada, bigarren itzuli bat egiten da botoen 12,5% edo gehiago atera dutenekin. (Frantzia)
 - Lehenetsun/ordezko botoa (Alternative vote): Australia.

Australiako adibidea

HAUTAGAIAK	1. zenbaketa	2. zenbaketa (Stewart kanporatua)	Azken zenbaketa (Dwyer kanporatua)
Allen (ALP)	13.129 (41.3%)	14.507 (45.6%)	15.279 (48.0%)
Sykes (Nat)	8.414 (26.5%)	8.802 (27.7%)	16.531 (52.0%)
Dwyer (Lib)	8.306 (26.1%)	8.501 (26.7%)	
Stewart (Gm)	1.961 (6,2%)		

BALLOT PAPER
HOUSE OF REPRESENTATIVES
VICTORIA
ELECTORAL DIVISION OF WILLOCHIE

**Number the boxes
from 1 to 22
in the order of your choice**

SAVAGE, Katherine
 KARDANITSIS, Bill
 KUHNLE, Otto Ernest
 PHILLIPS, Richard
 KATHAN, WI
 RAWSON, Geraldine
 DELACRETAZ, John
 POGLOS, Patricia
 BROULERS, Julien Paul
 FRENCH, Bill
 POTTER, F. C.
 MURPHY, John
 VASSIS, Chris
 CLEARY, Philip
 FERRARO, Salvatore
 GERMAINE, Stan
 WALKER, Angela
 MACKAY, David
 LEWIS, Bob
 SYKES, Ian Grant
 KYRILL, Kon
 MURPHY, David

Formula banatzaileak edo proportzionalak

Oro har, boza kopuruaren arabera aulkien banaketa egiten da, gizarteko ideia politikoen indar-korrelazioa islatu asmoz.

1) Kuotaren formulak:

Hauteskunde-kuota kalkulatu da. Zerrenda bakoitzak jasoko duen aulki kopurua, bere boto kopurua kuota horrekin zatituz eskuratzen da. Kuota kalkulatzeko metodo ezberdinak daude:

Hare kuota: $q = b.b./m$

Hagenbach-Bischoff: $q = bb./(m+1)$

Imperiali: $q = b.b./(m+3)$ – Droop: $q = (b.b./m+1)+1$

Hare-Niemeyer: $q(x) = (b.b.xm) / b.b.$

Hare-Andrae aldaera (Single Transferible Vote)

q= kuota ; b.b.= boto baliagarriak; m=barrutiaren magnitudea

Behin kuota zehaztuta, aulkien banaketa ekingo diogu. Alderdi bakoitzaren baliozko botoak kuotagatik zatituz. Zatiduratik ateratako zenbaki osoak zehaztuko du aulki kopurua. + Aulki guztiak banatu gabe geratzen badira, bigarren eragiketa, soberan dauden aulkiak banatzeko:

- Hondar handienaren metodoa: hondar handienak dauzkaten zerrendak lortzen dituzte banatu gabeko eserlekuak. Barruti berebean edo maila altuagoko barrutian egin daiteke.
- Hondar txikiena
- Hondar banaketaren metodoa:
alderdien botoen hondarrak / eskuratutako eserleku kopurua + 1
Zatidura handienak dituzten alderdiek eskuratuko dituzte geratzen diren aulkiak.

Ohikoena Hare kuota + hondar handiena

Adibidea, Hare + hondar handienaren formula: $q=b.b./m$.

Gipuzkoako 2005eko autonomia hauteskundeetako emaitzak.

$m = 25$; $b.b. = 391.594$.

$q = 385.467 / 25 = 15.418,68$.

Alderdia	Botoak	Botoak / q	Kuota osoak	Hondar handienak	Aulkiak guztira
EAJ-EA	147.498	147.498 / 15.418,68 = 9,57	9	c	10
PSE-EE	78.088	78.088 / 15.418,68 = 5,06	5		5
EHAK	70.577	70.577 / 15.418,68 = 4,58	4	b	5
PP	51.163	51.163 / 15.418,68 = 3,32	3		3
EB	20.278	20.278 / 15.418,68 = 1,32	1		1
ARALAR	15.273	15.273 / 15.418,68 = 0,99		a	1
BERDEAK	1.333	1.333 / 15.418,68 = 0,09			
POSI	621	621 / 15.418,68 = 0,04			
PH	500	500 / 15.418,68 = 0,03			
UA	136	136 / 15.418,68 = 0,01			
Guztira	385.467		22	3	25

Hare-Andrae aldaera: Boto Bakarra Eskualdagarria (STV):

Formula proportzional zaharrena da, 1855an sortua. Irlanda eta Maltako diputatuak eta Australiako senatariak hautatzeko. arruti plurinominala denean, baina botoa ez zaio zerrenda bati ematen, hautesleak berak osatzen du hautagaien lehentasun zerrenda. Droop kuota erabiltzen da.

- **Barrutiaren magnitudea: 5; Boto-emaitzak 48**

- 1. Kuotaren kalkulua (Droop: $q=(b.b./m+1)+1$): **q=9 boto**
- 2. Hautesleek boto-txarteletan adierazi dituzten lehentasunak:

- Lehenengo lehentasunak zenbatzen dira

Hautagaiak	Botoak(1)	Hautatuak
Miren	3	
Ainhoa	8	
Garazi	15	Hautatua
Erramun	4	
Susana	3	
Tomas	6	
Jazinto	9	Hautatua
	48	

- 3. Soberan dauden botoak eskualdatu

- Garazik 6 boto soberan ($6/15=0,4$). Bere boto-txarteletan agertzen diren bigarren lehentasuna zenbatzen dira, eta kopuru hori 0,4gatik biderkatzen dugu.
- Demagun Garaziren 15 txarteletatik 10etan Susana agertzen dela bigarren lehentasun modura eta 5etan Miren. Honela Susanak 4 boto gehiago jasoko ditu ($10 \times 0,4$) eta Mirenek 2 ($5 \times 0,4$) (Hots!: $4+2=6$ Garazik soberan zituenak).

Hautagaiak	Botoak(1+2)	Guztira	Hautatuak
Miren	3+2	5	
Ainhoa	8	8	
Garazi	15-6	9	Hautatua
Erramun	4	4	
Susana	3+4	7	
Tomas	6	6	
Jazinto	9	9	Hautatua
		48	

- 4. Ez du inork aukirik lortu: Boto gutxien dituen hautagaia kanporatu egiten da

- Bere botoak azaltzen duten hurrengo lehentasunera eskualdatu
 - Adb: Erramunen botoak: 4tik 3 Tomasengana doaz eta 1 Ainhoarengana
- 5. Banatzeke geratzen den aukia Susanarentzat izango da Miren baita boto gutxien daukana.

Hautagaiak	Botoak(1+2+3)	Guztira	Hautatuak
Miren	5	5	
Ainhoa	8+1	9	Hautatua
Garazi	9	9	Hautatua
Erramun	4-4	0	
Susana	7	7	Hautatua
Tomas	6+3	9	Hautatua
Jazinto	9	9	Hautatua
		48	

- Formula honen helburua: alferrikakoak izango liratekeen bozak baliatzea.

2) Bataz besteko handienaren edo zatitzailearen formulak

Zerrenda bakoitzak eskuratutako boto kopurua zatitzaile sail baten bidez zatitzen da eta eragiketa horretatik sortzen diren zatidura handienei ematen zaizke aukerak. Oro har, alderdi handiei egiten diete mesede

Formula ohikoenak:

- D'Hondt (zatitzaileak: 1,2,3,4,...): Estatu Espainiarrean, Portugal, Finlandia, Belgika, Austria...
- Saint-Lague (1,3,5,7,9,...): Zeelanda berria
- Saint-Lague aldatua (1'4, 3, 5, 7, 9,...): Norvegia, Danimarka, Suedia... Alderdi txikiei %40 zailtzen die lehenengo aukia lortzeko
- Imperiali: 2,3,4,5,...

Kuotaren formulak baino sinpleagoa

3) Formula konbinatuak

Erabilpen independentea: aukien banaketa maila bakoitzean era bereziaz egiten duten sistemak

- Italia (2017): 630 auketik, 232 izen bakarreko barrutietan, 386 aukia Hare kuotaren bidez, Estatu mailako barruti bakarrean.
- Errusia (1993-2003): 450 aukia, 225 izen bakarreko barrutietan, 225 Hare kuota erabiliz izen askotako anitzeko barrutietan.
- Lituania, Hungaria, Palestina (2005).

Erabilpen erlazionatua: Alemania, Hego-Korea, Danimarka.

Ordezko formulen erabilpena: formula proportzionala izan arren, botoen gehiengoa hartu duten zerrendei eserleku gehiagorekin saritzea.

- Frantzia (1951): barruti batean botoen gehiengo osoa lortuta, eserleku guztiak hautagai horren esku geratzen ziren (koalizioak sortzeko aukera).
- Italia (2006): eserlekuen banaketa Hare + hondar handienaren formulaz egin eta gero, inork ez baditu 340 eserleku eskuratu, botoen gehiengoa lortu duen zerrendak, automatikoki 340 eserleku eskuratzen ditu (617tik).

Danimarkaren adibidea

- 135 aukia 10 barrutietan banatzen dira, Saint-Laguë aldatua formula erabiliz.
- 40 eserleku desproportzionaltasuna konpentsatzeko banatzen dira, maila nazionalen.
- Hautesleek botoa zerrenda bati eman diezaiokete, edo lehentasun zerrenda bat egin.

Alemaniko Bundestag-aren adibidea

1 fasea: aukien banaketa maila federalean

Alderdi bakoitzari dagokion aulki kopurua (598 guztira) maila federalean jasotako boto kopuruaren arabera zehazten da Saint-Lague formula erabiliz.

2 fasea: aukien banaketa länderretako zerrendetan

Alderdi bakoitzari maila federalean dagozkion aukiak esleitu ondoren länder bakoitzeko banaketa egiten da Saint-Lague formula erabiliz.

3. fasea: hautetsien izendapenak

Alderdiek eskuratutako aukiak lehenengo hartuko dituzten hautetsiak izen bakarreko barrutietan irabazleak izan direnak ditugu, bete gabeko aukirik balego, zerrendetan diren izenetara joko da länder-etako banaketari eutsiz. Alderdiren batek banaketa federalean dagokion aulki kopurua baino izen bakarreko barruti gehiagotan irabazten badu bundestag-eko magnitudea handitu egiten da legegintzaldi horretan. Hemen da formulen erabilpen erlazionatuaren ondorioz nagusienetakoa.

Hauteskunde-muga

Aukien banaketan parte hartzeko gainditu beharreko baldintza da, legez arautua. Ohikoena bozen 5% lortzea da, Espainian 3%. Bere ezarpena estatu-maila edo barruti-mailakoa izan daiteke. Espainian barruti-mailakoa da (eskaerak daude hori aldatu eta tokiko alderdiak ordezkariarik gabe uzteko). Maila estatalean ezarritako mugek zaildu egiten dute nazio gutxituetako alderdi ordezkariak.

Dena dela, legezko eta berezko mugen artean ere badago gatazka. Espainiako legezko-muga baxua izan arren, berezko muga nahiko altua da (barrutien magnitude txikiagatik). Adb. 2019ko apirilko hauteskunde orokorretan, PPK Araban botoen %13a lortu zuen, baina ordezkariarik ez.

Europako Parlamentuan ez dago legezko mugarik.

Botoaren egituratzea

Boto-emaelearen aukera nola adieraz daitekeen adierazten du.

Banakoei ala taldeei emandako botoa

- Banakoei emandako botoa
 - Gehiengo soila
 - Bloke botoa (x boto x magnitudeko barrutiarentzako)
 - Boto metagarria: hainbat boto hautagai berari emateko aukera, edo ez
 - Boto mugatua: bloke boto moduan, baina boto kopurua magnitudea baino txikiagoa.
 - Boto bakarra eskualdaezina
 - Boto bakarra eskualdagarria

- Taldeei emandako botoa
 - Zerrenda botoa: zerrenda itxia eta blokeatua, zerrenda itxia eta ez blokeatua, zerrenda irekia, edo panachage.

Lehentasun boza ala boza kategorikoa

	BOZA KATEGORIKOA	LEHENTASUN BOTOA
ERABAKI ESKUALDAEZINA	G. S. F. (m= 1) (Kanada, Erresuma bata ...) Boto bakarra eskualdaezina (Jordania, Vanuatu,...) G. F. Zerrenda itxia eta blokeatua (Kamerun, Singapur,...) F. P. Zerrenda itxia eta blokeatua (Espainia, EAE, NFE)	G. F. Boto metagarria (enpresetako zuzendariak aukeratzeko) G. F. Bloke botoa (Tailandia, Filipinak...) G. F. Boto mugatua (Gibraltar, Espainiako Senatua) F. P. Zerrenda itxia /ez blokeatua (Danimarka, Suedia, Belgika,...) F. P. Zerrenda irekia (Austria) F. P. Panachage (Suitza)
ERABAKI ESKUALDAGARRIA		G. O. F. Lehentasun botoa (Australiako parlamentua, Irlandako Presidentzialak) G. O. F. Bozkatze bikoitza F. P. Boto bakarra eskualdagarria (STV) (Malta, Irlanda, Australiako senatua)

7. GAIA: Hauteskunde sistemen ondorioak

Sarrera: hauteskunde- sistemen eragin politikoak

Argudio teorikoak eta ideologikoak

Sistemen ondorioei politikoei buruzko eztabaida klasikoa maila teorikoan garatu da. Eztabaida bi posiziotan banatu daiteke (Nöhlen, 1994: 111)

- A. Gehiengo sistemen aldekoak: helburua gehiengo parlamentarioak sortzea, gobernuaren osatzea errazteko. (gehiengo formulak erabiltzen dituzte)
- B. Sistema proportzionalen aldekoak: helburua gizartearen iritzi ezberdinak islatzea da (formula proportzionalak erabiltzen dira).

Gehiengo sistemak dira historian zaharrenak. Arrazionalista frantsesek XVIII. Mendean jada planteatzen zuten proportzionaltasunaren aldeko argudioak, baina printzipio horiek praktikara eramateko baliabide teknikorik gabe. XIX. mendean sistema proportzionalak martxan jartzen dira, eta proportzionaltasunaren printzipioak gero eta onarpen zabalagoa du.

GEHIENGO ORDEZKARITZAREN ABANTAILA TEORIKOAK	ORDEZKARITZA PROPORTZIONALAREN ABANTAILA TEORIKOAK
Zatiketa saihestu	Iritzi guztien ordezkari
Alderdi biko sistema sortu, kontzentrazioa.	Gehiengo ekoiztuen sortzea ekiditen du.
Gobernuaren egonkortasuna sustatu	Gehiengoa eratzeak ezberdinen arteko negoziazioa eta konpromisoa eskatzen du.
Moderazio politikoa	Gobernu aldaketa handietarako oztopoa da.
Gobernu aldaketa erraztu	Gizarte aldaketak islatzen ditu.
Hauteslearen botoak eragin zuzena du gobernuaren aukeraketan.	Alderdi nagusi baten sortzea saihesten du.

Ondorio politikoak, maila teorikoan

Ondorioa	Gehiengo ordezkari	Ordezkari proportzionala
Alderdi biko sistema	Bai	Ez
Alderdi bakar baten gehiengoa	Bai	Ez
Gobernuaren egonkortasuna	Bai	Ez
Gobernu koalizioa	Ez	Bai
Gizartearen isla	Ez	Bai
Indar berrientzako aukerak	Ez	Bai
Hauteslearen eragin zuzena gobernu osaketan	Bai	Ez

Hauteskunde-sistemen inguruko eztabaida gaur egun

Gaur egun ikerketa enpirikoan oinarritzen den korrontea nagusitzen ari da. Aitzindaria Douglas Rae da, *The Political Consequences of Electoral Law* (1967) liburuarekin. Duverger, Sartori, Lijphart eta Nöhlenen artean eztabaida dago, hauteskunde eta alderdi sistemen kausa-ondorio harremanaz. Bi ikuspegi nagusitzen dira:

1. Hauteskunde-sistemak alderdi-sisteman dituen eraginak aztertzen dituen (Duverger).
 - Hauteskunde-sistema aldagai independentea izango litzateke, alderdi-sistema mendekoa. Adb. "Gehiengo hauteskunde sistemak alderdi biko sistemen sorrera eragiten du"
2. Oinarri soziopolitikoetan zentratzen den ikuspegia (Nöhlen).
 - Sistema politikoa aldagai independentea da, hauteskunde-sisteman eragiten duena. Adb. "Alderdi biko sistemak gehiengo sistema eratzeko interesa izango du"

Hauteskunde-sistemen eragin esparruak

Ordezkaritza parlamentarioa.

- Proporzionaltasuna.
- Zatiketa.
- Gehiengoeko ekoizpena.
- Gobernu-koalizioak.

Alderdi politikoak.

- Alderdiaren izaera.
- Alderdiaren batasuna.
- Hautagaien izendapena eta liderren erreklutamendua.
- Hauteskunde-kanpainetako estrategia.

Hautesleriaren portaera.

- Parte hartze maila.
- Polarizazioa.
- Boto estrategikoa.
- Hautesleen eta hautetsien arteko harremanaren ezaugarriak.

Gizarte politikoa.

- Legitimazioa
- Integrazio estatala eta erregionala.
- Gutxiengoaren integrazioa.

Hauteskunde-sistemen eragin politikoak eta ordezkaritza parlamentarioa

Ordezkaritza parlamentarioaren dimentsioak:

Lurralde-dimentsioa

Barrutia eta prorrata

Prorrata barrutiei dagokien aulki kopurua zehazteko prozedura da. Ondorio politikoak izan ditzake bere desbideratzea handia bada: lurraldeen integraziorako tresna (landa-eremuen gain-ordezkaritza adibidez) delako eta alderdi baten maneiua politikoa izan daitekeelako (landa eremuak tradizioz alderdi kontserbadoreen aldekoak izan dira esaterako).

Desbideratzearen kalkuluak:

Prorrataren desbideratzearen indizea:

$$d = (\text{biztanleria}/m)_1 / (\text{biztanleria}/m)_2$$

1-Kaltetuen den barrutiaren prorrata; 2-Bataz besteko prorrata

Datuak nola irakurri:

$d \geq 2,5$ eragin handia, hauteskunde-emaitzak eraldatzeko adinakoa.

$2,5 \geq d \geq 1,5$ eragina bada, baina ez du emaitza arriskuan jartzen normalean

$1 \leq d \leq 1,5$ eraginik ez.

Prorrata EAEko hauteskunde-barrutietan

	A/80	A/84	A/86	A/90	A/94	A/98	A/01	A/05	A/09
ARABA	8992	7539	8014	8494	9121	9767	9831	9906	9929
GIPUZKOA	26016	20569	21644	21744	22528	23447	23427	23236	22999
BIZKAIA	42718	35274	36747	37280	38320	39650	39270	38839	38114
Bizkaia/Araba	4,8	4,7	4,6	4,4	4,2	4,1	4,0	3,9	3,8
Gipuzkoa/Araba	2,9	2,7	2,7	2,6	2,5	2,4	2,4	2,3	2,3
Bizkaia/Gipuzkoa	1,6	1,7	1,7	1,7	1,7	1,7	1,7	1,7	1,6
Desbideratze-indizea (D)	1,65	1,67	1,66	1,66	1,64	1,63	1,62	1,62	1,61

J.L. Mokoroak egina

Nola kalkulatu:

$D = (\text{biztanleria}/m)_1 / (\text{biztanleria}/m)_2$ (1-Kaltetuen den barrutiaren prorrata; 2-Prorrata lurralde osoan).

$$D_{A/80} = (42718/25) / ((8992+26016+42718)/75) = 1,65$$

A/86	25nakoak	B. propor. (1)	Barruti bakarria
EAJ	17	19	19
EA	13	12	12
HB	13	14	14
EE	9	8	8
PSE	19	18	17
PP	2	2	3
CDS	2	2	2

A/09	25nakoak	B. propor. (1)	Barruti bakarria
EAJ	30	32	31
EA	1	2	2
PSE-EE	25	25	25
PP	13	11	11
Aralar	4	3	4
EB	1	1	2
UPD	1	0	0**

A/98	25nakoak	B. propor. (1)	Barruti bakarria
EAJ/PNV	21	23	22
EA	6	5	6
EH	14	14	14
IU-EB	2	2	4
PSE-EE	14	14	13
PP	16	16	16
UA	2	1	0**

(1) Barruti proportzionalak diseinatzea EAeko lurralde bakoitzeko errolden arabera eserleku banaketa litzateke. Horrela 1986ko hauteskudetan Bizkaiak 42 eserleku banatuko lituzke Gipuzkoak 24 eta Arabak 9. Berriz 1998an Bizkaiak 41m Gipuzkoak 24 eta Arabak 10 izango lituzkete. 2009an Bizkaiak 40, Gipuzkoak 24 eta Arabak 10.

Barrutien magnitudeen "bariantza eragina"

Magnitude oso ezberdineko barrutidun sistemetan magnitudeak bi eragin osagarri ditu:

- Alderdi-sistemak magnitudearen arabera dira: lehian dauden alderdi kopurua jokoan dauden aulkien kopuruari egokitzen zaio, beraz jokalaria kopurua ezberdina izango da barruti bakoitzean.
- Hautesleriaren ezaugarri politiko nabarmen bat barrutietan barrutien magnitudearen arabera banatzen bada, bariantzak eragin politikoak ditu. Hiri eremuetan babes handiagoa duen alderdiak lehiatu behar du alderdi gehiagorekin, landa-eremuan babesaren duen alderdiak baino. Honela, honi errazagoa zaio gain-ordezkaritza izatea.

Dimentsio ideologikoa

Proportzionaltasuna botoen eta aulkien ordezkarritasunaren neurria da, zerrendek eskuratutako botoen kopuruen eta lortutako aulkien kopuruen arteko erlazioa agertzen duen erakuslea. Alderdiak lortutako boto portzentajea eta aulki portzentajeak zenbat eta parekatuagoak izan, orduan eta proportzionalagoa.

Hori aztertzeko oinarrizko datuak dira boto portzentajea eta aulki portzentajea. Honakoak dira proportzionaltasunaren neurgailuak:

Desproportzionaltasun indizeak

Sistemaren eraginaren neurri adierazten dute eta proportzionaltasun hutsa da konparaziozko adierazlea.

Gallagher: berbidura minimoen indizea

Abantaila ratioa, aulkiko kostua eta proportzionaltasun profila

Alderdi bakoitzean sistemak duen eraginen neurgailuak dira eta konparazioa alderdien emaitzen artekoa da.

Abantaila ratioa: $\% e_i / \% b_i$

Aulki kostua: b_i / e_i

e = eserleku

b= boza

Proportzionaltasun profila: alderdi guztien abantaila ratioaren emaitzaren diagrama.

Hauteskunde-sistemen osagaiek proportzionaltasunean duten eragina (botoen egituraketak eraginik ez)

1. Barrutia eta proportzionaltasuna (osagairik inportanteena):

Formula proportzionalen eragina honen menpe dago. Zenbat eta txikiagoa magnitudea, orduan eta desproportzionalagoa. Kasu desproportzionalenak izen bakarreko barrutiak ematen diren herrialdeak dira.

- Holanda eta Israelen barruti bakarra dago herrialde osorako.
- Espainiaren kasuan, formula proportzionala erabili arren, landa-eremuko barrutiak txikiak izanda, desproportzionaltasuna handitu egiten da.

2. Formula eta proportzionaltasuna:

Gehiengo formulak

- Gehiengo soila: formula desproportzionalena
Gehiengo soilaren beste erabilpen batzuk
 - Boto mugatua (Espainiako senatua): proportzionaltasuna handitzen da
 - Boto bakar eskualdaezina (Japonia 1994 arte): hauetan proportzionalena
- Gehiengo osoa: lehentasun botoa eta bozkatze bikoitza. Oro har proportzionalagoak dira. Bozkatze bikoitzean, lehenengo itzulia kontuan hartuta, desproportzionaltasuna oso handia da.

Formula proportzionalak: Sailkapen zerrenda (Lijphart)

- Hare kuota eta hondar handiena.
- Droop kuota eta hondar handiena.
- Hare-Andrae. (boto bakarra eskualdagarrria)
- Zatitzailean formula-Saint-Lägue
- Zatitzailean formula- Sainte-Lägue aldatua.
- Imperiali kuota eta hondar handiena.
- Zatitzailearen formula- D'Hondt.
- Zatitzailearen formula- Imperiali

3. Hauteskunde-muga eta proportzionaltasuna (legezko eta berezko muga):

Legezko muga: hautagai edo zerrenda batek aukien banaketan kontuan hartua izateko izan behar duen boto portzentaje.

- Proportzionaltasunaren kontrako neurria.
- Legezko muga handi baten ezarpenak magnitude txikiko barrutien eragin berdina.
- Magnitude txikiko barrutietan, legezko mugak ez du ondorioz izaten (Arabian berezko muga %15).
- Legezko mugaren lurralde ezarpena: Estatu-mailakoa edo barruti mailako izan daiteke. Estatu-mailako muga altuak eragingo dio bere botoa lurralde batean kontzentratzen duten alderdiengan (EAJ adibidez). Europako hauteskundeetan, Estatu mailako barruti bakarra erabiltzen denez, ez dago legezko mugarik.

Berezko muga: ordezkartza eta baztertze atariaren artean

Ordezkaritza-ataria: egoerarik aldekoenean alderdi batek aulki bat eskuratzeko gaitu beharreko gutxieneko boto portzentajea. Gehiengo formuletan handia da, eta murrizten doa formula proportzionalekin.

n =alderdi kopurua ; m =magnitudea

- Gehiengo soila: $1 / n$
- D'Hondt : $1 / (m + n - 1)$
- Sainte-Lägue : $1 / (2m + n - 2)$
- Hondar handiena eta Hare kuota : $1 / (m * n)$

Baztertze-ataria: berezko mugak izan dezakeen baliorik handiena

- Baztertze-ataria = $1 / (m + 1)$

Atari eraginkorra (edo berezkoa): formula banatzaileekin erabiltzen da, batez besteko kalkulua

- $A e = (\%50 / (m + 1)) + (\%50 / 2m)$

Adibidea

Gehiengo soila sistema: $m = 1$; $n = 5$

- Ordezkaritza ataria = $1 / n = 1/5 = 0,20$ %20
- Baztertze ataria = $1/(m+1) = 1/2 = 0,50$ %50
- Atari eraginkorra: $A e = (\%50 / (m+1)) + (\%50 / 2m) = 0,5$ %50

Sistema proportzionala: $m=3$ $n=3$ D'Hondt formula.

- Ordezkaritza ataria = $1 / (m + n - 1) = 1/5=0,2$ %20 (besteek %40 lortuta)
- Baztertze ataria = $1 / (m+1) = 1/4 = 0,25$ %25 (alderdi batek % 75 eskuratuta. %80 eskuratuta, 3 eserlekuak beretzat izango lirarteke)
- Atari eraginkorra = $(\%50 / (m+1)) + (\%50 / 2m) = 0,208$ %20,8

Dimentsio soziala

Barrutia eta botoaren egituratzea dira osagai eraginkorrenak talde gutxituen ordezkariak errazteko.

Barrutia:

- Barrutien diseinua gutxiengoak ordezkatzeko. AEBetan gerrymanderinga gutxiengo etnikoak ordezkatzeko.
- Zelanda Berria, lurralde oinarria duten ezarri beharrean, irizpide pertsonala ezarri dute maorien ordezkarietarako. Orduan, pertsona maoriarrek barruti propioa osatzen dute. Berriki, Eslovenia eta Kroazian aplikatu dute sistema hau.
- Barruti plurinominalek segregazioa saihesten dute.

Botoaren egituratzea:

Loturik aurreko elementuekin. Boto pertsonalizatuak (izen bakarreko barrutia), zenbait gutxiengoen ordezkariak gutxitzen du, zerrenda botoarekin (izen askotariko barrutia) alderatuz. Zerrendak, jatorri sozial ezberdinetako hautagaiak aurkeztea ahalbidetzen du.

Gobernagarritasuna: zatiketa, gehiengoaren ekoizpena, gobernuaren osaketa

Gobernagarritasuna eta gobernuaren osaketa, egonkortasuna eta errendimendua

Hauteskunde-sistema aldagai independentetzat eta alderdi-sistema mendekotzat hartzen dituen ikuspegia da. Planteamenduaren muina sistema proportzionalek alderdi askotariko sistemak sortzen dituzten ideian dago. Horri lotuta, alderdi-sistema zatituak gobernagarritasun zaileko egoerak dakartza. Westminsterreko eredua defendatzen dutenen argudioa da.

Gobernagarritasunaren oinarriak:

- Gobernuaren eraginkortasuna edo errendimendua: eskaerei eta arazoei erantzun egokiak emateko gaitasuna.
- Legitimitatea: gobernuak sostengu parlamentario sendoa izatea eta horretarako akordio garden eta bideragarriak egitea.

Ikuspegi horretatik, alderdi-sistema zatikatuak ezegonkortasun politikoa sustatu dezake, gobernu-gehiengoak sortzea zailagoa baita. Gehiengo-hauteskunde sistemak sustatzen dituztenen diskurtsoa da.

Baina alderdi-sistema zatituak ez ditu berez ezegonkortasuna eta gobernagarritasun eza sortzen. Hori ez da gertatzen adostasunezko demokrazietan (Lijphart) edo alderdi askotariko sistema moderatu eta segmentatuetan (Sartori), gobernagarritasuna beren ezaugarri nabarmenetakoa da.

EAEko egoera politikoa dugu horren adibide, 11 legegintzaldietan oso gobernu krisi gutxi izan direlarik. 1980tik hona, EAJren osaketa ezberdina izan da legegintzaldi gehienetan, bi krisi egon direlarik (EAren sorrera eta Lizarra-Garaziko akordioaren apurketa).

Zatiketa

Botere politikoaren banaketari egiten dio erreferentzia. Honako indizeek adierazten dute:

Hauteskunde-Alderdien Kopuru Eraginkorra:

$$\text{HAKE} = 1 / \sum \%b.b.^2 \text{ (Laakso \& Taagepera)}$$

Alderdi Parlamentarioen Kopuru Eraginkorra:

$$\text{APKE} = 1 / \sum \%e^2 \text{ (Laakso \& Taagepera)}$$

Murrizketa ehunekoa:

$$\%m = (\text{HAKE} - \text{APKE}) * 100 / \text{HAKE}$$

Hauteskunde-zatiketa:

$$Z_H = 1 - \sum \%b.b.^2 \text{ (Rae)}$$

Zatiketa parlamentarioa:

$$Z_P = 1 - \sum \%e^2 \text{ (Rae)}$$

Zatiketa eta sistemen osagaiak

HAKE eta APKE berdinak baldin badira, murrizketa 0 izango da. Horrek esan nahi du sistema guztiz proportzionala dela. Murrizketa zenbat eta handiagoa izan, desproportzionaltasuna handiagoa izango da.

Barrutia:

- Batez besteko magnitudea txikia denean zatiketa proportzionaltasuna gehiagoak ekoizteko aukera gehiago
- Izaera psikologikoa edo estrategikoa era sartzen da. Magnitudea txikia bada, alderdi gutxiago saiatuko dira ordezkariak eskuratzen, eta HAKE txikiagoa izango da.

Formula:

- Gehiengo formulek APKE txikiagoa eta zatiketa parlamentario txikiagoa izango dute, eta HAKE eta APKEren arteko murrizketa handiagoa izango da.
- HAKEn modu ez zuzen batean eragingo du, ordezkariak lortzeko aukerak txikiagoak direlako.

Muga:

- Muga altuek zatiketa gutxitu egiten dute.

Gobernagarritasuna, errendimendu politikoa eta sistemak

Tesi tradizionalen arteko talka dago errendimendua vs ordezkagarritasuna, gehiengo logika eta lagin logika.

Batzuen ustez, gehiengo sistemek aginte logika elikatzen dute, indar politikoen polarizazioa indartzen dute gatazka ardatz nagusien inguruan, fronte estrategiak nagusituz.

Berriz, sistema proportzionalak lagin logikarekin funtzionatzen dute, gizarte segmentatuetan iritzi ezberdinek duten pisua islatuz, integrazio dinamika eta kontsentsua sortu (kontsentsuzko demokrazia).

Gehiengo sistemen aldekoak direnak, sistema proportzionalak sorturiko ezegonkortasuna eta zatiketa azpimarratzen dute. Historiari erreparatuz, denetarik dago:

Aginte logikaren arabera, Espainiako II. Errepublika (ezegonkorra), baita Frantzia eta Erresuma Batua ere (egonkorak)

Lagin logikaren arabera, Holanda, Suitza (egonkorak) eta Weimar Errepublika, Frantziar IV. Errepublika eta Italia (ezegonkorak).

Hauteskunde-sistemaren tipologia

Tipologiak eraikitze irizpideak

Helburu politikoen logikak: Nöhlen, Vallès & Bosch,...

- Gehiengo sistemak: aginte logika, gehiengoa ekoizteko helburua, gehiengo artifizialak sortzeko asmoa.
- Sistema proportzionalak: lagin logika, parlamentuan gizartean diren alderdien indar korrelazioa islatzeko helburua.

Sistemaren osagaien bat edo osagaiak: Bogdanor & Butler


Barrutien tamaina: txikia (1-6) ertaina (7-14), handia (15-...)

Formula:

- Gehiengo soila:
 - Izen bakarreko hauteskunde barrutia
 - Bloke botoa
- Gehiengo osoa:
 - Lehentasun botoa
 - Bozkaketa bikoitza
- Sistema erdi-proporzionalak:
 - Boto mugatua
 - Boto bakarra eskualdaezina
- Sistema proporzionalak:
 - Boto barra eskualdagarria (STV)
 - Zerrenda botoa:
 - Zerrenda nazionala eta banaketa nazionala.
 - Zerrenda erregionala edo tokikoa eta banaketa nazionala.
 - Zerrenda erregionala edo tokiko eta banaketa erregionala.

Eserlekuen banaketan duten eragina: Sartori, Meyer

Polo bakarreko eredua



0 = proporzionaltasun hutsa ($b\% = e\%$)

Sartori: feble eta strong systems

Meyer: sistema proporzional hutsa eta sistema proporzional ez-hutsa

Nöhlen, Vallès eta Bosch irizpide hau kritikatu egiten dute, kontrajarriak diren bi hauteskunde-sistema ezkututzen dituelako.

Gehiengo-sistemak

- Gehiengo soila.
- Gehiengo osoa.

Sistema proporzionalak (Nöhlen)

- Hutsak.
- Akastunak.
- Mugaren eraginpekoak

Sistema mistorik ote da?